

Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen sektoreak pandemian galdutakoaren zati bat berreskuratu du, eta % 7,8 gehiago fakturatu du Euskal AEn 2021ean

Enpresa txikiek, 10-49 enplegukoek, tira egin diote sektoreari: gora egin dute enpleguan (% 2,2), establezimendu-kopuruan (% 2,3) eta, bereziki, negozio-zifran (% 22)


Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen sektoreko establezimenduen negozio-zifra, 2021ean, 9.314 milioi eurokoa izan zen, 2020an baino % 7,8 gehiago, Eustaten datuen arabera. Urte horretan lasaitu ziren COVID-19aren ondorioz jarduera ekonomikoari ezarritako neurri murriztaileenak.

Establezimendu-kopurua pixka bat jaitsi zen, % 1, guztira 27.327 izatera heldu arte, eta enplegatu-kopurua % 2,3, 127.878 pertsona okupatuz.

Negozio-zifraren igoera aipagarriarekin bat etorritz, Lanbide eta Enpresa Zerbitzuetako establezimenduek 6.073 milioi euroko balio erantsia sortu zuten; igoera % 8,1ekoa izan zen.

Jarduera profesionalen eta servitzu lagungarrien sektorearen negozio zifraren jarduera azpisektorearen arabera. 2021

Ehunekoak




Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Aldi erabilgarriak 2021 ▼

Jarduera profesionalen eta servitzu lagungarrien sektorearen langileen banaketa jarduera azpisektorearen arabera. 2021



Ehunekoa



Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Aldi erabilgarriak 2021 ▼

Atalen analisia

Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen sektorea bi atalek osatzen dute: **Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoek** eta **Jarduera administratibo eta zerbitzu osagarriek**.

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen atalak 21.524 establezimendu ditu, eta establezimendu-kopuruari dagokionez nagusi da, guztizkoaren % 78,8 baitu. Negozio-zifrari dagokionez ere nagusi da, fakturatutako 6.249 milioi euroak sektorearen % 67,1 baitira. Ez, ordea, enpleguari dagokionez; izan ere, 63.254 pertsona enplegatuek sektorearen erdia baino zertxobait gutxiago osatzen dute: guztizkoaren % 49,5.

Atal honen balio erantsi gordinak nabarmen gainditu zituen 3.965 milioi euroak, eta 2020an lortutakoa % 5 hobetzea ere lortu zuen.

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen atalaren negozio-zifrak % 4,8 egin du gora, baina establezimendu-kopurua jaitsi egin da (% 1 gutxiago), eta, era berean, % 0,8 jaitsi da ataleko enplegua 2021ean, 2020ko datuekin alderatuta.

Bestalde, **Jarduera administratiboen eta zerbitzu osagarrien** atalak 3.066 milioi euroko fakturazio globala du, eta Jarduera Profesional eta Zerbitzu Osagarri guztien negozio-zifraren % 32,9 da; bertako 64.624 enpleguak enplegu guztiaren % 50,5 dira, eta 5.803 establezimenduak jarduera-sektore horretako establezimendu guztien % 21,2 dira.

Jarduera administratiboen eta zerbitzu osagarrien kasuan, balio erantsi gordina 2.108 milioi eurokoa izan zen, eta 2021ean % 14,4 igo zen, beraz, 2020ko datuekin alderatuta.

Jarduera administratiboen eta zerbitzu osagarrien atalean, establezimendu-kopurua % 0,9 murriztu da, eta enplegua % 3,7. Fakturazioa, aldiz, % 14,3 igo da.

Dibisioen analisia

Emaitzak jarduera-maila bereiziagoan aztertuz, eta, Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen atalaren barruan, garrantziagatik nabarmentzen dira **Jarduera Juridikoetako eta Kontabilitateko eta Arkitektura eta Ingeniaritza Zerbitzuetako** dibisioak. Lehenak 3.034 milioi euroko fakturazioa izan zuen, dibisioaren % 48,6, eta bigarrenak 2.012 milioi eurokoa, dibisioaren % 32,2. Bien artean negozio-zifra osoaren % 80,7 metatu zuten, establezimendu guztien % 74,5 eta enpleguaren % 69,5 izanik.

2021ean, Jarduera Juridikoetako eta Kontabilitateko dibisioak 25.470 pertsonari eman zien lana 10.576 establezimendutan, eta Arkitektura eta Ingeniaritza Zerbitzuetako 5.456 establezimenduetan 18.480 pertsona aritu ziren lanean. 2020arekin alderatuta, bietan negozio-zifrek gora egin zuten: % 6,1 Jarduera Juridikoek eta Kontabilitatekoek, eta % 3,5 Arkitektura eta Ingeniaritza Zerbitzuek. Establezimendu-kopuruari dagokionez, bietan behera egin zuen; lehenengoan, % 1,7 eta, bigarrenean, % 2. Enplegua % 4,9 jaitsi zen Jarduera Juridikoetako eta Kontabilitateko dibisioan, eta % 0,9 igo zen Arkitektura eta Ingeniaritza Zerbitzuetan.

Gainerako hiru dibisioei dagokienez, **Ikerketa eta Garapenaren** dibisioaren portaera negatiboa izan da fakturazioan, % 8 jaitsi baita 2020arekin alderatuta. **Beste Jarduera Profesional Batzuk** dibisioak (besteak beste, Diseinua, Argazkigintza, Itzulpengintza eta Interpretazioa eta Albaitaritza barne hartzen ditu) % 9,9 egin du gora, eta **Publizitatea eta Merkatu Azterketak** dibisioaren fakturazioa, berriz, % 13,8 igo da.

Ikerketa eta Garapeneko jardueretarako enpleguaren bilakaera positiboa da; izan ere, 2020an baino % 3,7 gehiago dago, nahiz eta establezimendu-kopurua % 1,2 murriztu den. Beste Jarduera Profesional Batzuk dibisioan enpleguak gora egin du, % 1,5 hain zuzen ere, eta establezimendu-kopuruak % 0,7. Gauza bera gertatzen da Publizitatea eta Merkatu Azterketak adarrarekin; izan ere, bilakaerak zifra positiboak ditu bai establezimendu-kopuruan (% 3,8 gehiago), bai landunetan, % 6 egin baitute gora.

Euskal AEko Jarduera profesionalak eta zerbitzu lagungarriak sektoreko aldagai nagusiak, jarduera-taldearen arabera (milaka euro). 2021

	Establezimenduak			Landun-kopurua			Negozio kopurua		
	Balioa	osoaren %	Urteko aldakuntza (%)	Balioa	osoaren %	Urteko aldakuntza (%)	Balioa	osoaren %	Urteko aldakuntza (%)
Jarduera profesionalak eta zerbitzu lagungarriak	27.327	100,0	-1,0	127.878	100,0	-2,3	9.314.496	100,0	7,8
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	21.524	78,8	-1,0	63.254	49,5	-0,8	6.248.964	67,1	4,8
- Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	10.576	38,7	-1,7	25.470	19,9	-4,9	3.034.268	32,6	6,1
- Arkitektura- eta ingeniari-tza-zerbitzuak	5.456	20,0	-2,0	18.480	14,5	0,9	2.011.699	21,6	3,5
Ikerketa eta garapena	410	1,5	-1,2	8.413	6,6	3,7	415.710	4,5	-8,0
Publizitatea eta merkatu azterlanak	1.393	5,1	3,8	4.040	3,2	6,0	349.812	3,8	13,8
Beste jarduera profesional	3.689	13,5	0,7	6.851	5,4	1,5	437.475	4,7	9,9
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	5.803	21,2	-0,9	64.624	50,5	-3,7	3.065.532	32,9	14,3
Alokairu jarduerak	607	2,2	0,2	2.557	2,0	0,4	437.959	4,7	13,5
- Actividades relacionadas con el empleo	219	0,8	5,3	8.737	6,8	-16,2	348.316	3,7	31,4
Bidaia-agentziak	690	2,5	-5,0	1.825	1,4	-3,4	330.019	3,5	57,0
Bestelako zerbitzu-jarduerak	4.287	15,7	-0,6	51.505	40,3	-1,5	1.949.238	20,9	7,1

Data 2023ko Uztailaren 13a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak atalaren barruan, guztizkoan duten partaidetzagatik, **Beste Zerbitzu Jarduera Batzuk** dibisioa nabarmentzen da –Segurtasun eta Ikerketa Jarduerak, Eraikin eta Lorezaintza Zerbitzuek eta Enpresentzako Laguntza Jarduerak osatzen dute–, eta sektoreko enpleguaren eta establezimendu guztien hiru laurdenak hartzen ditu (% 79,7 eta % 73,9, hurrenez hurren). 2021ean bilakaera negatiboa izan du, bai landunei dagokionez (-% 1,5), bai establezimendu-kopuruari dagokionez (-% 0,6); ez da gauza bera gertatzen fakturazioarekin, % 7,1 igo baita.

Beste Zerbitzu Jarduera Batzuk alde batera utzita, beste dibisioek partaidetza murrizta dute beren atalaren barruan. Horrela, establezimenduen % 11,9 eta enpleguaren % 2,8 **Bidaia Agentziei** dagokie; establezimenduen % 10,5 eta enpleguaren % 4 **Alokairu Jarduerari**, eta establezimenduen eta enpleguaren % 3,8 eta % 13,5, hurrenez hurren, **Enpleguarekin lotutako jarduerari**.

Hiruretan egin du gora fakturazioak. Bereziki da aipagarria Bidaia Agentzien fakturazioak izandako igoera, 2020an beherakada esanguratsua izan baitzuen, eta aurten % 57ko igoera izan baitu aurreko urtearekin alderatuta. Enpleguak, aldiz, % 3,4 egin du behera, eta establezimendu-kopuruak ere behera egin du: % 5. Bestalde, Alokairu Jardueretan, fakturazioa % 13,5 igo da, enplegua % 0,4 eta establezimenduak % 0,2. Enpleguarekin lotutako jarduerak ere beherakada nabarmena izan dute landunetan (-% 16,2), baina establezimendu-kopuruak gora egin du (% 5,3), eta fakturazioa nabarmen igo da (% 31,4).

Lurraldeen arabeko analisia

Hiru lurralde historikoetan igo da negozio-zifra. Araban % 10,1 igo da, Bizkaian % 9,3 eta Gipuzkoan % 3,3

Lurraldeen arteko banaketari dagokionez, eta establezimendu-kopurua kontuan hartuta, Euskal AEko guztizkoaren % 52,9 Bizkaian dago, % 33,6 Gipuzkoan eta % 13,5 Araban, eta aldeak kontuan hartzekoak dira jardueraren arabera. Esate baterako, Jarduera Juridikoak eta Kontabilitatekoak % 58,5era iritsi dira Bizkaian; Gipuzkoan Ikerketa eta Garapenari

dagozkionak % 47,3 dira, eta Araban Enpleguarekin lotutako jarduerak % 19,2 dira, lurralde bakoitzeko jarduera adierazgarrienak aipatzearren.

Enplegua aztertuz gero, lurraldeen arteko banaketaren arabera, 2021ean Bizkaiak gure erkidegoko % 57,5 du; Gipuzkoak % 28,5, eta Arabak % 14. Kasu honetan, eta konparatiboki, lurraldeetako jarduerarik aipagarrienak hauek izan dira: Bizkaian, Bidaia-agentziak (% 63,6), eta, beste bi lurraldeetan, berriz ere Ikerketa eta Garapena Gipuzkoan (% 48,1), eta Enpleguarekin lotutako jarduerak Araban (% 26,9).

Lurraldeen mailan, hiru lurraldeetako fakturazioak bilakaera positiboa izan zuen 2021ean. 2020arekin alderatuta, Arabako negozio-zifrak % 10,1 egin zuen gora; Bizkaikoak % 9,3, eta Gipuzkoakoak % 3,3.

Establezimendu-kopuruaren eta enpleguaren bilakaera ezberdina da lurralde bakoitzean. Lehenengoa hiru lurraldeetan jaitsi da: % 1,4, % 0,7 eta % 0,2, hain zuzen ere, eta ordena horretan, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban. Enpleguari dagokionez, % 3,2 egin du behera Gipuzkoan eta % 2,9 Bizkaian, eta Araban, aldiz, % 1,8 egin du gora.

Euskal AEko Jarduera profesionalak eta zerbitzu lagungarriak sektoreko aldagai nagusiak, lurralde historikoaren arabera (milaka euro). 2021

	Euskal AE	Gehikuntza % 2021-2020	Araba/Álava	Gehikuntza % 2021-2020	Bizkaia	Gehikuntza % 2021-2020	Gipuzkoa	Gehikuntza % 2021-2020
Establezimenduak (kopurua)	27.327	-1,0	3.679	-0,2	14.463	-1,4	9.185	-0,7
Langile okupatuak (kopurua)	127.878	-2,3	17.852	1,8	73.567	-2,9	36.459	-3,2
Negozio kopurua	9.314.496	7,8	1.123.891	10,1	5.789.730	9,3	2.400.875	3,3
Hornidurak	2.030.331	10,6	211.523	6,9	1.326.147	13,7	492.661	4,4
Pertsonal gastuak	4.212.274	5,5	558.913	11,8	2.485.630	6,1	1.167.731	1,4

Data 2023ko Uztailaren 13a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Langile-gastuari dagokionez, hiru lurraldeetan igo da. Horrela, Araban % 11,8 igo da, Bizkaian % 6,1 eta Gipuzkoan % 1,4.

Enplegu-mailaren araberako analisia

Enpresa txikiek, 10-49 enplegukoek, tira egin diote sektoreari: gora egin dute enpleguan (% 2,2), establezimendu-kopuruan (% 2,3) eta, bereziki, negozio-zifran (% 22)

Establezimenduen tamainaren zehaztasunaren azterketak, enpleguaren arabera, informazio gehigarria ematen du.


Lehenik eta behin, mikroenpresak, hau da, 10 enplegu baino gutxiagoko establezimenduak, establezimendu guztien % 93,3 dira, eta langile guztien % 32,7ri ematen diote enplegua eta sektorearen fakturazioaren % 39,1 sortzen dute.

Enpresa txikiek, 10-49 enplegukoek, establezimenduen % 5,3 hartzen dute, baina sektorearen % 22,8ri ematen diote enplegua, eta, 2021ean Jarduera profesional eta zerbitzu osagarri guztien % 31,7 fakturatu zuten. Azkenik, 50 enplegu baino gehiagoko enpresak

establezimenduen % 1,4 baino ez dira, eta langile guztien % 44,5 enplegatu zuten eta guztizko bolumenaren % 29,2 fakturatu zuten.

2020tik 2021era arteko bilakaera ezberdina da enpresa handientzat gainerako enpresekin alderatuta. Izan ere, 50 enplegutik gorako enpresetan behera egin dute bai enpleguak (% 5,6 gutxiago), bai establezimendu-kopuruak (-% 0,3) bai fakturazioak (% 8,4 jaitsi da). Mikroenpresetan (1-9 enpleguak), establezimendu-kopurua % 1,2 jaitsi da, eta enplegua gutxiago, % 0,6 hain zuzen ere. Fakturazioa, aldiz, % 11,9 igo da. Azkenik, enpresa txikiek, 10-49 enpleguak, adierazle guztiak positiboak dituzte, eta establezimendu-kopuruan % 2,3ko igoera izan dute, enpleguan % 2,2koa eta negozio-zifran % 22koa.

Euskal AEko Jarduera profesionalen eta zerbitzu lagungarrien sektoreko negozio-zifra, lana eta establezimendu-kopurua, enplegu-geruzaren arabera. 2021



Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62